

Kimu urte amaierako txostena

AurreBidea:

Haurreri zuzendutako ikuskizunetan nire lehen esperientzia Dejabu konpainiaren “Azken portua” ikuskizunarekin izan zen. Bertan zuzeneko musika egitera gonbidatu ninduten eta herri ugartan zehar haurren aurrean jokatzeko aukera izan dut.

Rouge Eléa konpainiarekin ordea bestelakoa izan da esperientzia. Talde honekin sortzen ditugun ikuskizunak ez dira bereziki publiko gazteari zuzendutakoak baina askotan halako publikoarentzako emanalditan izan dira programatuak. Programazioari lotuta bitartekaritza saio ugari antolatu dira, haurrekin zuzenean solastu, gaiak landu eta ideiak elkaraldatzeko aukera izan dugularik. “Ronde-bi ahizpa” ikuskizuna eskola batetan sortzeko aukera izan genuen Aix en Provence hirian, haurrak elkarrizketatu eta haien ahotsekin soinu banda osatu genuen. Ikastola ezberdinetan ere haurrak ellkarrizketatu genituen euskerazko bertsioarako.

Bestelako tailer eta ikastaroak egin izan ditugu haur eta gazteekin. Nire arloa musika izanik, entzumena eta soinuari buruzko lanketak proposatu ditut talde ezberdinentzako, Euskal Herrian, Landesetan, Marseilan eta Bruselan. Esperientzia guzti hauek ikasketa saio ederrak izan dira. Entzumena eta soinuari buruzko sentsibilizazioaren inguruan tresnak bilatu eta praktikatzeko aukera izan dut, maiz urrunago joateko gogoz geratu banaiz ere. Hori izan zen Kimu deialdiari erantzuteko motibazioetako bat, bide horretan sakontzeko asmoa.

GaraiBidea

KIMU egitasmoak irekitako bidean zehar ikusitako, ikasita eta hausnartutakoak asko dira. Ezin dira zerrendatu ezta kontatu ere. Batez ere haurrei zuzendutako arte eszenikoen inguruan gogoeta egiteko aitzaki ezinhobea da, baita gure lanbidean hain garrantzixua den formakuntza mota ezberdinetan murgiltzeko ere.

Aukera ederra izan da haur eta gazteekin eta haur eta gazteentzako egiten diren proposamenetan murgiltzeko. Susmo bat konfirmatu dit, haurrak inozoak balira bezala ez tratatzea eta haien sentsibiltate eta gaitasunetan sinistea dela bidea. Nahiz esperientziak askotan kontrakoa esan, hau da, nahiz eta maiz edozein txorakeri eginda haurrek positiboki erantzun, bestelako jarduna hautu politiko poetiko bat dela. Oso gutxirekin konformatu ahal izango genukeen arren, guk ikusi nahiko genituzkeen kalitatezko obrak eskaini behar dizkiegu, beti ere haien begiradan ipinita eta haur edo gazte izatearen berezitasuna kontutan hartuta. Haien gureganaino eta guk haienganaino egiten dugun bide horretan pertsona egokiek lagundu beharko lituzkete. Kalitateaz gain, denborapasa- tik haratago joan behar dute lanek, ezin dugu haurra entretenitu besterik gabe, zerbait ekarri behar diogu sortzen ari zaion iruditeriari, begirada edo jakinminari. Hori nahi izatea gauza bat da, lortzea ordea zailena.

Ikusitako guztiaren ondoren, sentsazioa dut haur eta gazteeri zuzendutako ikuskizun bakoitza saiakera bat dela, gure ideal eta gogoen proiektzio bat. Sare botatze bat, ea baten bat sare horri lotzen den, ea buru horien alderdiren batetan hazi txiki bat uzterik badugun, kuriosoagoak, autonomoagoak, libreagoak izango direlaren esperantzaz. Ikusmina, jakingura, kuriosidadea da garai honetan buruan bueltaka dudana kontzeptua. Gaur egun faltan dugula uste baitut. Baina haurrak ezin dira engainatu ezta haien nahi dutena asmatu. Nola piztu haien jakinmina? Nola zuzendu haien guk nahi dugun horretara? Galdera handiak dira, baina niretzako irakaspen handia izan da zera ulertzea, helduek erabaki behar dugula zer den egokia haurrentzat, ezin diegula haien utzi erabakitzen... ene! Ezin dugula haietaz fio! Hau horrela, ximpleki diot, atzean dauden nabardura guztiez jakitun, obserbazioa eta esperientziak lagunduta egin behar dela lan, baina beti ere, haur izateari aspaldi utzi zion pertsona horren begien atzetik.

Hemen zerrendatu ditut ikusi ahal izan ditudan ikuskizunak:

- “Ai! Ze Haizea!” - Zuzeneko musika garaikidea eta testuan oinarritutako ikuskizuna. Sara, Hego Lapurdiko Hiri Elkargoa. *2015eko Azaroa*
 - “Moby dick” - Gorakada konpainia, Errenteria. *2015eko Azaroak 27*
 - “Enchantés” - Haur txikientzako dantza ikusgarria, Le fil rouge théâtre. Biarritz Kultura. *2015eko Abenduak 2*
 - “Sur un petit nuage” jaialdia, Pessac. *2015eko Abendua*
 - “T'es qui toi?” - Cie Paysages Nomades
 - “Bartleby” – Bob Théâtre
 - “Les fusées” - Cie La Boîte à sel
 - “Mystery Magnet” - Miet Warlop
 - “Anywhere” – Cie de l'Entrouvert. Oloron St. Marie. *2016ko Urtarrilak 26*
 - “Concierto para bebés” - Paulo Lameiro. Euskalduna jauregia, Bilbo. *2016ko Urtarrilak 23*
 - “On the Edge” jaialdia, Birmingham. *2016ko Uztaila*
 - “Pim&Téo” - adierazpen askatasunari buruzko ikuskizuna. Danimarka eta Suezia arteko koprodukzioa.
 - “The curious scrapbook of Josephine Bean” - Objetu teatro fina eta irudimenez betea, Shona Reppe.
 - “Brush” - marrazkia eta jokoa, Hego Korea.
 - “Broke n'beat collective” - Hip hop dantza eta kantu performancea, gai sozialez hornitua.
 - “The Hamilton complex” - 13 neska gazte dantzarik emandako ikuskizuna, Hetpaleis Belgika.
 - “Nosferatu” – Txotxongilo eta objektu teatroa, Bob théâtre, Britainia.
- Work in progress ezberdinen aurkezpena:
- “Can you see me?” - haurrak eszenan jartzen dituen dantza ikuskizun esperimentalak, Ingalaterra.
 - “There's gold in the water” musikala, Irlanda.
 - “My diary” auto fikzioan oinarritutako ikuskizuna, Wales.

- Fira Tàrrega, 2016ko Iraila

“Oskara” - Kukai dantza konpainia, EH.

“Furieuse tendresse”- Cirque exalté, zirkoa, Frantzia.

“Teatro sonido” – Soinua eta kale antzerkia. Txile.

“Asuelto” - Dantza, Hurrycan konpainia, Madril.

“Si sabes lo que hay” - Dramaturgia berriak, Fundación Collado, Balentzia.

- “Les ombres blanches” - Cie Pernette. Maitaldia, Miarritze. 2016ko Iraila

Arrazoi ezberdinengatik markatu nauten ikuskizunak:

“Ai! Ze Haizea!” - Lehenengo enkontrua eta zuzenean musika eta soinetan oinarritzen den ikuskizun hori deskubritzea interesgarria izan zen baita musika garaikidea eta soinu inguruneak haurrerri zuzentzeko proiektua duen konpainia ezagutzea ere.

“Bartleby” eta “Nosferatu” – Bob Théâtre. Narrazio klasiko bat eguneratzen egindako lorpenagatik.

“Mystery Magnet” - Miet Warlop, Arte plastikoak eta antzerkia uztartzen dituen ikuskizun esperimentalak.

“Moby dick” - Gorakada, musikariak eszenan txertatzeko duen abilezia gustatu zitzaidan. Bestalde duen erritmo azkarra, haurrai arnagune edo geldiunerik eman gabe, ez zitzaidan hainbeste gustatu, haiek aspertuko diren beldurrez izango bagina bezala.

“Concierto para bebés” - Paulo Lameiro. Euskalduna jauregia, Bilbo. Formatua gustatu zitzaidan, mundu guztia eszenatoki gainean, lauki batetan eta haurrak mogitzeko libre. Haur batzuk ikuskizuna musikarien artean pasa zuten eta lasai asko musikariak. Haurren musika festa handia bihurtzen da baina estetikari eta helburuari buruzko zalantzak sortu zitzaizkidan, ez ote zen oso denbora pasazkoa, oso “begira zein ederra den musika!”.

“Enchantés” - Haur txikientzako dantza ikusgarria, sentsazioetara zuzenean doan ikuskizuna, bilaketa ederra, haurren buruan estimuluak bilatzea. Pertsonaia bat soinuekin baino ez du komunikatzen

“Pim&Téo” - Adierazpen askatasunari buruzko ikuskizuna. Egun beharrezko baino ezinbesteko ikusten dudana gogoeta dakarren ikuskizuna, moralinarik gabe, eztabaidarako atek irekitzen dituen ikuskizun izugarria, formatu oso erakargarrian, baliabideak oso ongi erabilia gainera. Gazteen artean eztabaida eta gogoeta pizteko oso aproposa.

“Brush” - marrazkia eta jokoa, Hego Korea. Irakaspena.

“The Hamilton complex” - 13 neska gazte dantzarik emandako ikuskizuna. Haur eta gazteentzako baino haien antzeztutakoa, baina ez sortutakoa. Helduen sorkuntza bat 13 neskatxaz baliaturik, pena agian haien ezinegonak eta ez ikusi izana.

“Les ombres blanches” Cie Pernette. Fantasmeri buruzko dantza antzerki ikuskizuna, ilusioz betea. Fantasmeri buruzko topikoak errepasatzen ditu baina batez ere soinu sorkuntza interesatu zitzaidan, mota oso ezberdinetako soinuez hornitua eta aldi berean ikuskizunean leku oso garrantzixua betetzen zuena maixuki.

“The curious scrapbook of Josephine Bean” - Idazketa izugarria, gauza txikiekin istoria txiki eder bat kontatzen duelako, baina batez ere nola dagoen kontatua.

Formakuntzak:

“La clinica de la obsesión” Matias Umpierrez. Donostia Kulturak antolatuta. 2016ko Apirila.

“Haurrak eta entzumena” Xabier Erkizia. Mikelazulon. 2016ko Maiatza.

“New perspectives in the use of music in theatre for young audiences” Peter Kus. Birmingham. 2016ko Uztaila.

“Crossing the scene and other scores” Matteo fargion. Bartzelona. 2016ko Iraila.

“Voix, rythme et chansons” Steve Waring. Pantin. 2016ko Azaroa.

Formakuntzak eskaintzen dituzten zenbait leku interesgarri:

- <http://www.juntadeandalucia.es/cultura/redportales/formacion-cultural/>
- <http://studio-te.fr>
- <http://www.enfancemusique.asso.fr>
- <http://www.roy-hart-theatre.com>